

Kaixo guraso,

Apiriletik aurrera, entitate finantzarioen barne araudi baten aldaketa dela eta (SEPA), etxean jasotzen dituzuen ordainagirietan aldaketak izango dituzue. Araudi honek agiri hauetan idatzita dauden karaktere kopuruak murriztuko ditu.

Karaktere murrizketa hau dela eta, gerta daiteke bankutik etxean jasotzen duzuen ikastolako hileroko ordainagiriak dituen kontzeptu guztiak ikusteko arazoak izatea (edo ez irakurtzea bere osotasunean) eta ondorioz, ikusgai dauzkazuen kontzeptuen batura guztirakoarekin bat ez etortzea.

Sortu daitekeen nahasmen hau ekidin nahian, aurrerantzean, hileroko ordainagiriak ikastolatik bidaliko ditugu zuzenean, informazio osoa izan dezazuen.

Hau ondo gauzatzeko, nahitaezkoa da helbide elektroniko bat izatea eta, aurretik helbide elektroniko bat baino gehiago emana baduzue, zein helbidetan jasotzea nahi duzuen zehaztea. Horretarako, bete ezazue orri hau eta zuen seme-alaben tutoreari emaziozue martxoaren 19a baino lehen.

Helbide elektronikoa: _____

Hartzailearen izen-abizenak: _____

Ikaslearen/en izen-abizenak: _____

Ikasmaila/k: _____

Sinadura: